

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**3828/2024 Ebazpena uztailaren 22ekoa, Ogasuneko zuzendariarena, Arabako Lurralde Historikoan iruzurraren aurka Borrokatzeko 2024ko Plana hezurmamitzen duten irizpide orokorrak aditzera ematen dituen**

Arabako Foru Ogasunak ezarrita dauzkan funtsezko helburu estrategikoak dira lurralde historikoan zerga iruzurra prebenitzea eta haren aurka borrokatzea, bermatu ahal izateko betetzen dela norberaren gaitasun ekonomikoaren arabera denek gastu publikoei eusteko lagundu behar dutela dioen oinarritzko printzipioa.

Xede hori oinarri, Arabako Foru Ogasunak zenbait jarduera ildo ezarri ditu, zeinak ezinbestekotzat jotzen baititu iruzurraren aurka eraginkortasun handiagoarekin borrokatzeko. Hauek dira:

- Zergadunek beren zerga betebeharrak borondatez bete ditzatela sustatzea, informazioa hobetuz, zerbitzuak pertsonalizatuz, kudeaketak sinplifikatuz eta zergadunari laguntza emanez.
- Iruzurraren prebenitzioa, iruzur arriskuak alde aurretik identifikatuz, prebentzio neurriak hartuz eta haien bilakaeraren aldizkako jarraipena eginez, eta herritarren zerga kontzientiza hezi eta indartzeko ekintzak ezarrit.
- Iruzurrezko jokabideak antzematea eta erregularizatzea.
- Zerga zorren kobrantza kudeatzea, bai borondatezko aldian, bai betearazte aldian.

Jarduera arlo horiek garatzeko helburuarekin, Arabako Foru Aldundiaren zerga iruzurraren aurka borrokatzeko planaren irizpideak egiten dira urtero.

Egoera horretan, kontuan hartu behar da Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 112. artikulua. Honako hau ezartzen du berariaz:

“Zerga administrazioak urtero-urtero egingo du iruzurraren kontra egiteko plan bat, eta isilpekoa izango da, nahiz eta hori ez den eragozpen izango hura oinarritzen duten irizpide orokorrak jendaurrean jakitera emateko”.

Hori guztia dela eta, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 112. artikuluan ezarritakoa betetzeko,

#### EBAZTEN DUT

Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan iruzurraren aurka egiteko 2024ko plana hezurmamitzen duten irizpide orokorre –eranskinean datoz–, eta ALHAOn argitara daitezela agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 22a

Ogasun zuzendaria  
M<sup>a</sup> JOSÉ PEREA URTEAGA

## ERANSKINA

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN IRUZURRAREN AURKA BORROKATZEKO  
2024KO PLANA HEZURMAMITZEN DUTEN IRIZPIDE OROKORRAK

## 1 SARRERA.

Zerga iruzurraren aurkako borroka zerga administrazioen funtsezko helburu estrategiko bat da, bai ekitate arrazoiengatik, zerga justiziaren printzipioa benetan betetzeari dagokionez, bai arrazoi ekonomikoengatik. Izan ere, iruzurrak zerga karga bidegabe banatzea eragiten du zerga araudia betetzen duten pertsonen eta betetzen ez dutenen artean, eta, gainera, baliabide publikoen nahikotasuna eta sistema ekonomikoen egonkortasuna bera arriskuan jartzen ditu eta lehia desleialeko faktore bat sartzten du Arabako ekonomian.

Gure zerga sistemaren antolamendua zergak ordaintzera behartuta dauden pertsonen ahalmen ekonomikoan oinarritzen da, bai eta honako printzipio hauetan ere: justizia, orokortasuna, berdintasuna, progresibitatea, zerga kargaren banaketa ekitatiboa eta konfiskaziorik eza.

Iruzurraren aurka borrokatzeko 2024ko planaren xede nagusia da zergadunek eta zergapeko guztiek zerga betebeharrak betetzen dituztela bermatzea.

Hona hemen planak oinarri dituen ekintza nagusiak:

– Zergadunek zerga betebeharrak nork bere borondatez beteko dituztela sustatzea, laguntza pertsonalizatuaren eta teknologia berriak orokortzearen bidez, zerga iruzurraren aurka prebentzioz jardunda.

– Aztertzea eta ustiatzea eskuragarri dauden iturrietatik lortutako informazio zerga aldetik garrantzitsua, hala nola zergapekoen aitortpenak, berariazko errekerimenduak eta beste zerga administrazio eta erakunde batzuekin egindako informazio trukeak eta lankidetzak.

– Zergaduna sakonean ezagutzeak bere betebeharrak ez betetzeko arriskuak kudeatzen laguntzen du. Horrela, horrekin lotutako kontrol eta ikuskapen ekintzak errazago antolatzen dira.

– Herritarren zerga kontzientzia indartzea, zerga betebeharrak betetzeak kalitatezko zerbitzu publikoei eusteko duen garrantzian hezteko neurrien bidez.

– Iruzurra atzemateko azterna berriak aurkitzeko beharrezkoak diren tresna informatikoak hobetu eta ezartzea, erabakiak hartzea eta iruzurraren aurka borrokatzea.

– Zerga administrazioaren eremuan eskumena duten erakundeen arteko lankidetzak areagotzea.

– Dirubilketa organoek garatutako jardunak areagotzea, zergapekoen ordainketa lortzeko, bai borondate aldian, bai betearazpen aldian.

Aurreko urteko planetan bezala, Arabako Foru Ogasunaren Iruzurraren aurka Borrokatzeko 2024rako Planaren irizpide orokorrak sailkaturik daude tributuoak aplikatzeko organoen jardueren izaeraren arabera. Organo horiek kudeaketa, ikuskaritza eta zerga bilketa dira, eta lehenengo bien eginkizun nagusia zergadunen zerga egoera erregularizatzea da, eta zerga bilketako organoena, berriz, zerga zorren ordainketa lortzea.

Hala, plan honetako irizpide orokorrak osatzen dituzten jarduerak hiru kategoria handitan sailkatzen dira:

a) Informazioa lortzeko jardunak. Halakotzat hartzen dira zerga arloko informazioa lortzeko, normalizatzeko eta aztertzeko jardunak, zergadunari bere zerga betebeharrak berez betetzen laguntzeko, aitortutako datuen inkongruentziak aurkitzeko eta zergak aplikatzeko prozedurak ezarriko zaizkien zergapekoak hobeto hautatzen laguntzeko helburuarekin.

Berez, zuzenean iruzurrezko zenbatekorik emango ez duten jardunak dira, baina lortutako informazioari esker lortutako zerga arloko jardunak erregularizatzeko, eta haiek ekarritako zorra kobratzeko beharrezkoa den aurretiko fasea osatzen dute.

Horrenbestez, jardun horiek funtsezkoak diren edozein zerga administrazioarako, zerga iruzurraren aurkako borrokan eraginkorra izan nahi badu.

b) Prebentzio jardunak. Halakotzat hartzen dira iruzurra gertatzea zailtzen duten eta hori gertatzeko arriskuak txikiagotzen dituzten neurriak. Barnean hartzen dira, besteak beste, zenbait zerga arrisku egoeretara sartzeko kontrolak, zerga arloko jardunbide egokiak sustatzea eta herri-tarren eta zerga balioen aurrean sentikor agertzea eta horietan trebatzea. Zuzen ezartzen badira, zergapekoen iruzurrezko jardunak saihestuko dira, eta haiei aurrea hartuko zaie.

c) Erregularizatzeko eta kobratzeko jardunak, kudeaketa eta ikuskapen organoek garatutako zergak aplikatzeko prozedurak ezarri zaizkien zergapekoen zerga egoera egiaztatzeke, ikertzeko eta erregularizatzeko direnak. Baita zergak biltzen dituzten organoek garatutako jardunak ere, zergapekoen zorrak borondatezko aldian nahiz betearazte aldian ordaintzeko helburu dutenak.

Hiru motatako jardun horiek eraginkortasunez gauzatzeko, alde batetik, informazioa arinago eta eraginkortasun handiagoarekin tratatzen laguntzen duen garapen teknologikoak indartu behar dira; bestetik, Arabako Ogasunaren barruan zergak aplikatzen dituzten organoek lankidetzan aritu behar dute. Horrez gain, Foru Ogasunak eta beste erakunde batzuek lankidetzan ere aritu behar dute.

Beste alde batetik, beharrezkoa da lan sistemak eta prozedurak etengabe hobetzeko eta modernizatzeko prozesuan aurrera egiten jarraitzea, zergadunei ahalik eta gehien errazteko beren zerga eginbeharrak betetzea, informazio eta laguntza politika eraginkor baten bidez.

Ildo horretan bertan, azken urte hauetan asko areagotu dira eraldaketa digitaleko prozesuak, bai Foru Ogasunarenak bai zergadunenak, eta, horren ondorioz, areagotu egin da kanal telefoniko eta telematikoen erabilera, bideokonferentziak barne direla, bai zergadunei arreta ematean, bai zerga administrazioaren jardunetan.

Aurreko urteetan ere ikusi denez, oro har, 2024. urtean egin beharreko jardunak eta irizpide orokorrak biltzen dituen Arabako Lurralde Historikoan iruzurraren aurka borrokatzeko plan honek jarraitutasun ildo bat du aurreko urteko planen ikuspegiarekin, egiturari eta edukiari dagokienez. Horri esker, ezagutza eta esperientzia handiagoa izan daiteke aurreikusitako jardunei ekiteko eta, beraz, emaitza hobea lortzeko. Gainera, iruzurraren aurkako borrokan hartzen diren neurriak, kasu askotan, zergadun talde handiengan eragina izan dezaketen neurriak dira; beraz, egokia da ondorioak ekitaldi batean baino gehiagotan luzatzea, benetan eraginkorrak izan daitezten.

Nolanahi ere, aurreko urteetan jarraitutako lan ildoei eusten zaien bitartean, ezinbestekoa da ikuspegi berriak sartzeko eta jarduera arlo eta eredu berriak garatzea, jarduera ekonomikoan errealtate berriak agerian jarri ahala, bai eta eskuragarri dauden tresnen eta teknologiaren erabileran eta aprobetxamenduan ahalik eta gehien sakontzea ere.

Azkenik, azpimarratu behar da 2024an behin betiko finkatuko dela TicketBAI sistema Araban, 2023an betebeharrak hori ezarri zenetik lehen urte osoa bete ondoren. Aurreko urteetako planetan azaldu den bezala, foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren proiektu estrategikoa da, eta Arabako Ogasunari aukera emango dio, jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztientzako legezko betebeharrak tekniko batzuk ezarri, batetik, pertsona horien diru sarrerak kontrolatzeko, eta, bestetik, lortutako informazioa erabiltzeko, zergadunei beren betebeharrak fiskalak betetzen laguntzeko.

TicketBAI betebeharra ezartzearen ondorioz eta Arabako Ogasunaren eskura dauden gainerako iturrietatik gero eta informazio gehiago dagoenez, jasotako informazioa kontrolatzeko eta aztertzeko jarduerak areagotu beharko dira, tresna teknologiko aurreratuak erabiliz.

## 2. EGIN BEHARREKO JARDUNAK, 2024AN IRUZURRAREN AURKA EGITEKO PLANEAN JASOAK.

### 2.1. INFORMAZIOA ESKURATZEKO JARDUNAK.

Zergapekoen zerga arloko informazioa lortzeko, normalizatzeko eta aztertzeko jardunak funtsezkoak dira, erregularizatzeko eta kobratzeko jardunen aurreko fase gisa batik bat, izan ere, jardun horiei esker aukeratu daiteke zein zergapekori egingo zaizkion egiaztapenak era eraginkorragoan.

Horrenbestez, jadanik egindako zerga irregulartasunak aurkitzeko eta erregularizatzen eta kobratzen laguntzeko beharrezkoa den informazioa ematea da helburua.

Hori dela eta, informazio iturri gehiago bilatzea eta daudenak finkatzea eta garatzea dira Arabako Foru Ogasunak zerga iruzurraren aurkako borrokan egiten dituen jardueren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko giltzarriak. Azken helburua da zerga sistema bidezkoagoa eta ekitatiboagoa lortzea. Informazio horren ustiapen optimoa, "datawarehouse" motako tresna informatikoen bidez, etengabea izan da azken urteetan, eta indartu egingo da aurten.

Horiek horrela, Foru Ogasunak urteak daramatza auditoretza informatikoko tekniken erabilera bultzatzen zergadunen zerga egoera egiaztatzeko eta erregularizatzeko prozeduren garapenean.

Herritarren ondasun, eskubide, errenta edo jarduera ekonomikoetarako buruzko datuak informazio iturri hauetatik lortzen dira:

– Zergadunek beraiek aurkeztutako zerga aitortpenak, non beren datuak aitortzen dituzten, baina, era berean, harreman ekonomikoak dituzten hirugarren pertsonetarako buruzko informazioa ematen duten.

– Informazio aitortpen orokorrak, kasuan kasuko arauen bidez eskatzen direnak, batez ere jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsonetarako eta erakundeetarako aurkeztutakoak. Aitortpen horietan, zerga arloan garrantzia duten beste pertsona eta entitate zergadun batzuei buruz haiekin dituzten harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioengatik ezagutzen dituzten datuen berri ematen da.

– Zerga administrazioaren banakako errekerimenduen bidez zergapeko jakin batzuei informazioa biltzeko jarduketara selektiboak, informazio hori emateko betebeharra, oro har, aurreko paragrafoan aipatzen diren informazio aitortpenen bidez ezarrita ez dagoenean.

– Beste zerga administrazio batzuekin datuak trukatzeko prozedura automatikoen bidez eta erakunde eta entitate askorekin formalizatutako lankidetzaren hitzarmenen bidez lortutako informazioa.

Informazioa lortzeko iturri horiek guztiak funtsezko tresna dira, bai iruzur fiskalaren arriskuak detektatzeko eta egiaztatuko diren zergapekoak ahalik eta ondoen hautatzeko, bai zerga betebeharrak borondatez betetzeko informazioa eta laguntza emateko.

Era berean, 2024an, aurreko urteetan bezala, Arabako Foru Ogasunean baliabide material eta giza baliabide garrantzitsuak bideratuko dira datu bolumen handiak prozesatzeko eta datu zientziaren teknika berriak aplikatzeko sortzen dituen desfioei irtenbidea ematen dieten plataforma teknologikoak garatzeko. Ildo horretan, adierazi behar da azken urte hauetan informazio gehiago jaso dela BIH eta SILICIEren ezarketaren ondorioz, bai eta nazioarteko akordioen ondorioz ere, eta TicketBAI sistema ezartzearen ondorioz Foru Ogasuna jasotzen ari den informazio bolumena lehen inoiz ez bezala handituko dela:

Informazioa lortzeko jardun horiek arlo hauetan garatuko dira 2024. urtean:

1) Zerga arloko informazioa trukatzeko nazioarteko akordioak ustiatzea, Arabako Ogasuneko pertsona eta erakunde zergadunek atzerrian dituzten ondasun eta eskubideak aurkitzeko.

Bai zuzenean, bai beste pertsonen edo erakunde batzuen bidez, ondare elementuak eta errentak atzerrian izateak, iruzurrezko jokabideak aurkitzen zaitzen du. Nazioarteko erkidegoan zenbait neurri ezarri dira jokabide horiek saihesteko mekanismoak ezartzeko. Horretarako, herrialdeek euren artean informazioa trukatzeko tresna garrantzitsuak sortu dira, hala nola Espainiako Erresumaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko akordioa, nazioarteko zerga eginbeharrak hobeto betetzeko eta Foreign Account Tax Compliance Act – FATCA (Atzerriko Kontuen Zerga Eginbeharrak betetzeko Legea) ezartzeko, Madrilen 2013ko maiatzaren 14an egina; agintari eskudunen arteko akordio aldeaniztuna, finantza kontuen informazioaren truke automatikoari buruzkoa, Berlinen 2014ko urriaren 29an egina; eta, Europar Batasunaren esparruan, Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentaraua, fiskalitatearen eremuko administrazio lankidetzari buruzkoa, zeinak azken urte hauetan zenbait aldaketa jasan baititu gardentasun fiskalaren esparruko Europar Batasunaren ekimen berriei leku egiteko.

2024an hirugarren herrialdeetatik datorren informazioa eskuratzeko prozedurak eta sistemak garatzen eta hobetzen jarraituko da, AEATrekin lankidetzan. Horri esker, informazioa aztertu eta Ogasunean dagoen informazioarekin eta era selektiboan lortzen denarekin alderatu ondoren, erregularizatzeko eta kobratzeko dagozkion jardunak egingo dira.

Bereziki, mota hauetako informazioa aztertuko da:

– Egoitza foru lurraldean duten pertsonen edo erakundeen titulartasuna duten AEBetako finantza erakundeetako finantza kontuei buruzko informazioa. (FATCA).

– Egoitza Euskadin duten pertsonen edo erakundeek beste estatu kide batzuetan lortutako errenta kategoriatan jakin batzuei buruzko informazioa (mendeko lanaren errendimenduak, administratzaileen eta kontseilarien ordainsariak, bizi aseguruak, produktuak, pentsioak, ondasun higiezinak jabetza eta higiezinak errendimenduak). (DAC 1).

– Finantza kontuei buruzko informazioa ematea gainerako estatu kideetako finantza erakundeetan (DAC 2) eta ELGEn (CRS) esparruko hirugarren herrialdeetan, foru lurraldean egoitza duten pertsonen edo erakundeen titulartasunean.

– Mugez gaindiko tax rulings eta APAei buruzko informazioa (transferentzia prezioei buruzko aurreiazko akordioak), egoitza foru lurraldean duten pertsonak edo erakundeak tartean direla. (DAC 3 eta BEPSaren 5. ekintza).

2) Nazioarteko fiskalitatean eragiketak egiten dituzten zergapekoak aztertzea.

Arabako Foru Ogasunak gero eta arreta handiagoa jartzen dio nazioarteko zerga iruzurrari. Eremu honetan:

– Lotutako eragiketen tratamendu fiskala funtsezko elementua da, eta Europar Batasunak eta ELGAK ahalegin berezia egiten dute hori aztertzeko. Hain zuzen ere, ELGAK egindako azken lanak, BEPS proiektuaren barruan egindakoak, funtsezko azterketa tresnak dira nazioarteko zerga iruzurra aurkitzeko eta horrekin amaitzeko.

Espainiako Erresumak agintari eskudunen arteko akordio aldeaniztuna sinatu zuen beste 30 estaturekin 2016ko urtarrilaren 27an, “herrialdez herrialdeko txostena” trukatzeko. Akordio hori ELGAREN BEPS proiektuan barne hartzen da, eta nazioz gaindiko merkataritza taldeen transferentzia prezioen politikan arriskuak ebaluatzeko aukera ematen duen tresna da. Horrez gain, 2016ko maiatzaren 25eko Kontseiluaren 2016/881 Zuzentarauak (EB) 2011/16/EB Zuzentaraua aldatu du, eta informazioaren truke automatikoa multinazional talde handiek aurkeztu behar dituzten “herrialdez herrialdeko txostenetara” ere zabaldu du (DAC 4).

Aurreko urteetan bezala, 2024an, Arabako Ogasunak zenbait jardun egingo ditu, Arabako pertsona eta erakunde zergapekoek informazioa emateko betebeharrak horiek betetzen dituztela ziurtatzeko eta informazioa automatikoki trukatzeko nazioarteko akordioak baliatuz aipatutako taldeei buruz lortzen den informazioa ustiatzeko.

Informazio horrek garrantzi berezia du 2021eko urriaren 30ean 137 herrialdek ELGA/G20ren Esparru Inklusiboaren barruan lortutako akordioaren esparruan. Akordio hori Bat zutabean oinarritzen da (ezarpen eskubideak multinazionalak beren negozioa sortzen duten jurisdikzioetara berresleitzeari buruzkoa), eta Bi zutabean (multinazional handien irabazien gutxieneko tributazioa bermatzean datza, ehuneko 15ean finkatu baita), eta, horrela, sozietate egitura konplexuez eta transferentzia prezioen politikez baliatzea ekidingo da, negozioaren etekinaren gaineko zergak ordaintzea saihesteko.

EBren eremuan, esandako akordioa Kontseiluaren 2022ko abenduaren 15eko 2022/2523 (EB) Zuzentarauaren onespenean islatu da. Zuzentaru hori Batasuneko enpresa multinazionalen taldeentzat eta tamaina handiko talde nazionalentzat gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeari buruzkoa da. Zuzentaruak gutxieneko zerga tasa efektibo bat ezartzen du diru sarrera bateratuetan gutxienez urteko 750 milioi euroko atalasea iristen diren enpresa multinazionalen taldeentzat eta tamaina handiko talde nazionalentzat, eta, funtsean, aplikarazi beharko da 2024ko abenduaren 31tik aurrerako zerga ekitaldietarako.

Bestalde, zerga araubidea eta "Bi Zutabea" delakotik eratorritako zerga figura berriak Estatuko Administrazioarekin itundu beharko dira, foru eskumenaren irismena zehazteko.

– Ildo beretik, 2024an zehar Araban presentzia duten talde multinazionaleri dagokien informazioa ustiatuko da, taldeko zerbitzu erkide jakin batzuei buruzkoa, hala nola kudeaketari laguntzeko zerbitzuak, ukiezinak lagatzeko zerbitzuak, merkataritza zerbitzuak edo beste zerbitzu orokor batzuk, fakturatuta egon ez daitezkeenak edo behar bezala fakturatzeko ari ez direnak, Arabako Ogasunean aitortu beharko liratekeen diru sarrerak nabarmen murrizteko.

– Nazioarteko esparru honetan, informazioa lortzeko jardunak egingo dira, zergak ez ordaintzea helburu duen finantza ingeniartzako edozein trikimailu aurkitzeko helburuaz, hala nola, bereziki, finantza gastu artifiziosuen edo gehiegizkoen kenkaria aplikatzen edo asimetria hibridoak izenekoak edo zerga hitzarmenak gehiegikeriaz erabiltzen ari diren sozietate taldeak detektatzeko.

– Egiatzatuko da zergadunek eta bitartekariak behar bezala betetzen dutenez zerga administrazioari informazioa emateko eginbeharra, beraiek parte hartzen duten zerga plangintzako mugaz haraindiko mekanismoei buruz, Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentaruaren zehaztutako ezaugarri bereizgarriren bat gertatzen denean. Fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko zuzentaru horrek 77/799/EEE Zuzentaruaren indargabetzen du (DAC 6) (234, 235 eta 236 ereduak).

– Paradisu fiskalekin duten loturarengatik, zerga iruzurra egiteko arrisku handiagoa duten zergapeko, eragiketa eta jurisdikzioak aztertuko dira. Xede horretarako, dibisen trafikoari buruz jasotako informazioa aztertuko da, zerga ordainketa gutxiko edo zerga ordainketarik gabeko lurraldeetan egindako eragiketak aurkitzeko.

– Ildo beretik, Arabako Ogasunak, Estatuko gainerako ogasunek bezala, zerga araudiaren zenbait aldaketa onetsi ditu eta haien bidez jurisdikzio ez-kooperatiboaren kontzeptua definitu du, paradisu fiskalaren kontzeptua zabalgotuz, ekitate fiskalaren eta gardentasunaren irizpideen arabera, eta identifikatu ditu benetako jarduera ekonomikorik gabe etekinak erakartzeko helburua duten lurraldez kanpoko sozietateak egotea errazten duten herrialdeak eta lurraldeak, dela tributazio txikia edo ezdeusa dagoelako, dela beren opakutasunagatik eta gardentasunik ezarengatik, dela herrialde horrekin zerga informazioa trukatzearen arloan elkarri laguntzeko araudi aplikagarriak ez dagoelako, zerga informazioaren truke eraginkorrik ez dagoelako, edo herrialde eta lurralde horiekiko informazio trukeen eraginkortasunari buruzko ebaluazioen emaitzengatik.

Jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren herrialde eta lurraldeen zehaztapena eguneratu egin behar da, nazioarteko eremuan, bai Europar Batasunaren esparruan, bai ELGaren esparruan, egindako berrikuspen eta lanak kontuan hartuz. Izan ere, haietako irizpideek ahalbideratu

dute jurisdikzio ez-kooperatibo batzuk identifikatzea eta nazioarteko eremuan kategoria horretatik ateratzeko konpromiso batzuk eskatzea. Horren ondorioz, herrialde zerrendak etengabe berrikusten ari dira.

Ondorioz, Arabako Ogasunak areagotu egingo du jurisdikzio ez-kooperatibotzat hartzen diren herrialde eta lurraldeekin lotutako pertsona edo erakundeei buruz dagoen informazioaren azterketa. Jardun horiek aurrera eramateko, mundu mailako enpresa informazioaren datu baseak erabiliko dira, aurretik aipatutako nazioarteko truke automatikoen bidez jasotako informazioa eta sozietateen gaineko zergako aitortpenen informazioa.

– Azkenik, Arabako Lurralde Historikoan garatzen dituzten jarduerengatik egoiliarak ez diren pertsona eta erakundeen tributazioa aztertuko da.

Jardun horien bidez, Espainiako lurraldean bizi ez diren Arabako zergadunek izandako errenten zergak zuzen ordaindu dituzten aztertuko da, lurraldetik kanpo etengabe bizi diren edo ez kontuan hartuz. Kanon, royalty eta dibidendu gisa ez egoiliarrei egindako ordainketei batik bat erreparatuko zaie.

Halaber, informazioa lortzeko jardunak egingo dira, Arabako Lurralde Historikoan atzerriko enpresa gisa hartzen ez diren halako enpresak dauden ala ez aztertzeko.

3) Aldizka zergen arloko foru administrazioekin, lurralde erkidekoekin eta Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetakoak direnekin egiten diren informazio truke prozesuak finkatzea, garatzea eta handitzea, eta zerga arloko informazioa trukatzeko prozesuak handitzea eta hobetzea beste administrazio eta erakunde publiko batzuekin, zerga arlokoak ez direnekin.

Zentzu horretan, nabarmentzekoa da 2023an onetsi zen hitzarmena Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren eta Arabako eta beste foru lurraldeetako ogasunen arteko informazioa trukatzeko. Hitzarmenean jasotako beste alderdi batzuen artean, indarrean dagoen Ekonomia Itunaren 4. artikuluan aurreikusitakoaren babesean jada egiten zen zerga administrazio bakoitzaren eskumeneko zergadunei buruzko informazioaren aldizkako eta elkarrekiko trukeaz gain, honako hauek nabarmentzen dira: kobratzeko dauden zerga betebeharrak dituzten zordunei buruzko ondare informazioaren trukea, betearazpen aldian, eta Zerga Bereziak eta Ingurumen Zergak kudeatzeko aplikazioetarako sarbideak, betiere, trukatzeko informazioaren eta erabilitako aplikazio informatikoen kontrola eta segurtasuna zainduz.

Arabako Ogasunak eta gainerako foru ogasunak EAEko Administrazio Orokorrekin duten harremanaren esparruan, aurreikusita dago 2024. urtean ere biltzen eta ustiatzen jarraitzea 2016an sinatutako informazio trukearako esparru hitzarmenen babesean aurretiaz adostutako aldizkako informazioa, bereziki Eusko Jaurlaritzaren Turismo Enpresen Erregistroari buruzkoa. Era berean, hitzarmen horien babesean aztertuko dira urtean zehar sor daitezkeen aldizkako informazio eskaera gehiago, zeina zerga iruzurraren aurkako borrokan erabilgarria baita.

4) Informazioa lortzeko aldizkako eta araututako beste bide batzuk eguneratzea, hala nola oro har ezarritako informazio eredu bidez ezartzen direnak, betiere Arabako Zergei buruzko Foru Arauak ezarritako informatzeko betebeharrak orokorra betetzeko.

5) Zerga arloko informazio bilteta masiboak egingo dira, informazio eredu bidez oro har aurkezteko betebeharrak ezarrita ez badago. Jardun horien helburua da beren jardueraren zerga arrisku handiko sektore ekonomikoetan garatzen duten zergapekoei buruzko informazioa handitzea eta hobetzea.

Besteak beste jardun hauek egingo dira:

a) Informazioa lortzeko jardunak, pertsona eta erakunde zergadunek eragiketarako aurkitzeko lotura puntuak zuzen aplikatzen dituztela egiaztatzeko, hau da, zergen arloan Ekonomia Itunaren ezartzen direnak, bereziki Arbitraje Batzordearen azken ebazpenetan eta Auzitegi Gorenaren epaietan ezarritako interpretazio irizpideen arabera. Arreta berezia jarriko zaie abenduaren 28ko 10/2017 Legearen bidez, Ekonomia Itunaren aldaketa indarrean sartzearen ondorioz sortu diren lotura puntu berriei.

b) Balio erantsiko zerbitzuak emateko jarduerekin lotura duten berariazko informazio eskaerak, eta bereziki, azken kontsumitzaileentzat zuzenduta egoteagatik, zerga administrazioak beste baliabide batzuen bidez nahikoa informazioa ez dituenetan, iruzurrezko jarduerak egiten dituen zantzuak badaude.

c) Berariazko informazio eskaerak, zerga arloan, kengarritzat hartzen ez diren gastuak eta ekonomia jarduerekin zerikusia ez duten kontsumo pribatuak aurkitzeko.

d) Higiezin sektorean egindako eragiketak ikertuko dira, eta bereziki eraikinetako birgaitze lanen zerga ordainketak, balio erantsiaren gaineko zerga ongi jasanarazi duten aztertuko.

6) Finantza erakundeek informazio ereduetan emandako informazioa, kontuetako mugimendu garrantzitsuak eta txartel bidezko kobrantzak aztertuko dira, eta banku sistemen bidezko ordainketak onartzen ez dituzten pertsonak eta erakundeak ikertuko dira.

7) Informazioa lortzeko jardunak, ekonomia digitalaren eta negozio eredu berrien esparruan.

Enpresa arloan teknologia berriak aplikatzeak, eta ekonomiaren gero eta digitalizazio handiagoaren prozesuarekin zerikusia duten negozio eredu berriak ugaritzeak, erronka handia dakarte, zergak kontrolatzeko batik bat, negozio eredu berri horiek aurkitu behar direlako eta zergak zuzen ordaintzen dituztela egiaztatuz behar delako.

Ekonomiaren digitalizazioak barne hartzen ditu bai merkataritza elektronikoa, hau da, produktu fisikoak edo zerbitzuak sarean saltzea, berariazko truke plataformen bidez, bai ordaintzeko zerbitzu edo plataformak, aplikazioak eta produktu digitalak deskargatzeko plataformak, lineako publizitatea, sare parte hartzaileen plataformak (gizarte sareak direlakoak), edo hodeiko programazioa ("cloud computing" gisa ezaguna dena), bestelako negozio ereduaren artean.

Arlo horretan, azpimarratu behar da ELGA eta Europar Batasuna ekimenak bideratzen ari direla esparru digital horretan jarduten duten pertsona eta erakundeak lurralde bakoitzean behar bezala zergapetzen direla ziurtatzeko. Hala, Kontseiluaren 2021/514 (EB) Zuzentarauak, 2021eko martxoaren 22koak, fiskalitatearen arloko administrazio lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua (DAC 7) aldatzen duenak, informazio betebeharrak berri bat ezartzen die "plataforma digitalen eragileei"; Arabako zerga ordenamenduan jaso dena, eta informazio hori estatu kideetako zerga agintariek trukatu beharko dute.

Ildo beretik, 2024an, 179 ereduko informazio aitortpenaren bidez erabilera turistikoko etxebizitzaren errentamenduan edo lagapenean bitartekari diren lankidetzaren plataformetatik lortutako informazioa aztertuko da.

Era berean, 2024an, informazioa lortzeko jarduketak egiten jarraituko da, etxebizitzak xede turistikoa izateko lagatzeari buruz lortutako datu horien tratamenduari dagokionez. Jarduketa horiek «Plataforma eragileek informazioa emateko informazio aitortpena» izeneko 238 eredu berriaren bidez gauzatuko dira. Eredu hori aurten onetsi da, DAC 7 Zuzentarauaren transposizioaren testuinguruan. Zuzentzarau horrek 179 eredua ordeztzen du, eta plataforma digitalen eragileetara zabaltzen du bere eremua, ondasun higiezinaren lagapenaren eta errentamenduaren eremuko eragile zehatzetatik harago.

Betebeharrak hori alokairuetan bitartekaritza lana egiten dutenei dagokie, higiezin agentziak edo plataforma digitalak izan, eta 179 eredua edo ordeztzen duen 238 eredua izango dute, non etxebizitza turistikoen errentatzaileak identifikatu beharko baitituzte foru ogasunen aurrean, higiezinaren jabeak izan edo ez, eta jarduera horrengatik jasotako zenbatekoen berri eman beharko dute.

Zehazki, foru ogasunen 2024ko ekintzetako bat izango da informazio aitortpen horren bidez (179 eredua) edo horren ordezkotako 238 ereduaren bidez lortutako informazioa alderatzea administrazioan dauden gainerako datuekin (Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroa eta Interneteko kanal irekiak), iruzur arriskua duten pertsonak eta erakundeak detektatzeko eta, hala badagokio, haiekiko dagozkion jarduketak egiteko.



Halaber, adierazi beharra dago 2022an Arabako Ogasunak zerbitzu digital jakin batzuen gaineko zerga autolikidatzeko 490 eredu onetsi zuela. Zerga horrek hainbat zerbitzu zergapetzen ditu, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari direnak ekonomiaren eta transakzio digitalen esparruan, eta lehenengo aldiz 2022ko bigarren hiruhilekoari dagozkion autolikidazioetan aplikatzekoa da. 2024an, egiaztatu beharko da zerga berri horren zergadun diren enpresek autolikidazio zuzena egin duten.

Eremu horretan bertan, leihatilako araubide berezi berrien BEZaren autolikidaziorako 369 eredu onetsi zen. Araubide horiek honako hauen tributazioari dagozkio: batetik, azken kontsumitzaileek eskuratu (gehienetan Internet bidez eta plataforma digitalen bidez) eta hornitzaileak estatu kide batetik edo hirugarren herrialde edo lurralde batetik beste estatu kide batera bidaltzen dituen ondasun emateak; eta, bestetik, zerga egitatearen kokalekuari buruzko arauen arabera BEZari loturik dauden estatu kidean kokatuta ez dauden enpresek azken kontsumitzaileen alde egindako zerbitzu emateak. Araubide horiek ahalbideratzen dute zergadunak Batasunean (kontsumo-estatu kideak) egin dituen eta aipatutako araubide bereziak aplikatzen zaizkien eragiketa guztiengatik sortutako BEZa ordaindu ahal izatea, Arabako Ogasunean (identifikazioko zerga administrazioetat hartuta) bide elektronikoz aurkeztutako autolikidazio bakar baten bidez. 2024an, leihatila bakarreko araubide berezi horiek aukeratu dituzten enpresek autolikidazio hori behar bezala aurkezten dutela ziurtatzeko beharrezkoak diren jardunak egingo dira.

Beste alde batetik, 2024an, Arabako Ogasunak lanean jarraituko du, inguruko gainerako zerga administrazioekin koordinaturik, informazioa emateko eginbeharra ezartzeko, bai atzerrian kokatutako moneta birtualen titular diren zergadunei, bai moneta horiek edukitzeko eta erabiltzeko bide ematen duten gako kriptografiko pribatuak babesteko hirugarren pertsonen izenean zerbitzuak ematen dituzten Arabako pertsona eta entitateei dagokiena, eta orobat metodologia eta prozedurak prestatzeko, diru birtualen titularrek dauzkaten saldoei buruz esandako informazio eginbeharraren bidez lortutako informazioa egiaztatu eta kontrastatzeko ekintza egokiak egiteko, eginbehari hori erabat ezarrita dagoenean.

Bereziki, zergapekoek informazio aitorten berriak behar bezala aurkeztu dituztela egiaztatzeko jarduketak egingo dira, hala nola atzerrian kokatutako txanpon birtualei buruzko informazio aitortpena (721 eredu), moneta birtualetako saldoei buruzko informazio aitortpena (172 eredu) eta txanpon birtualekin egindako eragiketeei buruzko informazio aitortpena (173 eredu).

Horrela, moneta birtualetako inbertsioari eta ordainketari buruzko informazioa lortzeko errekerimenduak egingo zaizkie enpresa bitartekariei, era horretako kriptoaikiboen inbertitzaileen, haien errentaren eta ondarearen iturriaren eta inbertsio horietatik lortutako errendimendu edo gainbalioen balizko existentziaren ezagutza areagotzeko.

8) Jasotako informazioa aztertzea eta ustiatzea, Berehalako Informazio Hornikuntza Sistemaren (BIH) eta Zerga Berezien Kontabilitate Liburuen Berehalako Hornikuntza Sistemaren (SILICIE) bidez.

9) Sistema informatikoak gehiago kontrolatuko dira, informatika auditoretza jardunak sustatuz. Haiek, zergadunen bulego edo lokaletara bertaratzea ekarriko dute, informazioa biltzeko.

TicketBAI sistematik eratorritako betebehari legalak eta teknikoak ez direla betetzen detektatzeko kontrolak egingo dira.

Horrez gain, ekonomia jarduerak garatzen dituzten zergadunek zentsu aitorten betebehariak betetzen dituztela egiaztatzeko jardunak, eta aitortu gabeko jardunak aurkitzeko jarduerak egiten jarraituko da.

Informazioa lortzeko jardun horiek guztiak garatzeko, Arabako ogasunaren zergak aplikatzeko eskumenak dituzten organoak oreka egokia lortzen saiatuko dira zerga iruzurraren aurka borrokatzeko eraginkortasunaren eta datu pertsonalen babesari buruzko arautegian ezarritako datuen kalitate eta proportzionaltasun printzipioaren arabera.

## 2.2. IRUZURRA PREBENITZEKO ETA ANTZEMATEKO JARDUNAK.

Kategoria honetan barne hartzen dira bai kontrol jarduketak, iruzurrezko jokabideak atzema-teko eta saihesteko, bai zerga betebeharrak berez eta borondatez betetzen laguntzen dutenak. Helburua da herritarren zerga kontzientzia indartzea eta zergadunei laguntza eta informazioa ematea.

Hala, Arabako Foru Ogasunak honako jardun hauek gauzatuko ditu 2024an:

1) Garapen teknologikoetan oinarritutako proiektuak, jarduera ekonomikoak egiten dituzten zergadunen kontrol handiagoa lortzeko helburuarekin.

Ekonomia jarduerak garatzen dituzten pertsona edo erakunde guztien zerga ordainketa osorik kontrolatzeko sistemak ezartzea, haien tamaina edo eragiketen bolumena edozein dela. Horren helburua iruzurra, egin aurretik, prebenitzea da, eta foru ogasunak azken urteetan bultzatzen ari dira.

Ekimen hori egiteko, oso garrantzitsua da aurrerapen teknologikoak erabiltzea, herritarrek beren zerga betebeharrak bete ditzaten, eta betetzen ez dituzten zergadunen iruzurra jazartzeko.

Eremu horretan, aurreko urteetan abian jarritako proiektu hauek garatzen jarraituko da:

I. TicketBAI proiektua.

Foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritza 2016tik ari dira lanean TicketBAI proiektuan, zeinaren helburua baita ziurtatzea jarduera ekonomikoak garatzen dituzten pertsonak eta erakundeek egindako salmenta eragiketara guztien aitortzea.

Gure inguruko herrialdeen esperientzian oinarritu da, eta ELGAren 2013., 2017. eta 2019. urteetako txostenetan jasotzen diren gomendioei jarraitu die («Salmenten ezabapen elektronikoa: zerga sarrerarako mehatxu bat», «Ihes fiskala eta iruzur fiskala saihesteko tresna teknologikoak» eta «Implementing online cash register: benefits, considerations and guidance», hurrenez hurren).

Urte anitzeko proiektu horren helburua da legezko zenbait betebeharrak eta betebeharrak teknikoak ezartzea, zerga administrazioak jarduera ekonomikoaren sarrerak kontrola ditzan; bereziki horiek ezkatatzeko joera duten sektoreetan barne hartzen diren jarduerak, azken kontsumitzaileei zerbitzuen ondasun edo prestazioak entregatzen dizkietelako eta neurri handi batean eskudirutan kobratzen direlako.

Era berean, lortutako informazioa zergadunei beren zerga betebeharrak betetzen laguntzeko erabiliko da.

Hortaz, TicketBAI sistemaren helburua da fakturazio gailuek emandako jatorrizko salmenta erregistroak gordetzea eta zerga administrazioari komunikatzea bermatuko duten bitartekoak ezartzea, hau da, azken kontsumitzaileen kolektiboari igorri zaizkion egoera berean eta eduki berarekin.

2022an, jarduera ekonomikoak egiten dituzten pertsona eta entitate guztiek nahitaez TicketBAI sistema erabiltzeko eginbeharra ezarri zen; horrela, urte horretatik aurrera, dagoeneko Foru Ogasunera bidaltzen ari dira jaulkitako fakturei dagozkien fitxategiak, jaulkitzen diren une berean.

Hau da TicketBAI sistemaren ezaugarri nagusia: faktura bakoitza bidali aurretik fitxategi bat sortzeko egokituta egon behar dute fakturazio programek, eta fitxategi horrek jardueraren kontrolerako beharrezkoa den zerga informazio guztia izan behar du. Faktura egin ondoren, fitxategia Ogasunera bidaltzen da. Fakturan, hartzaileek TicketBAI erabili dela ikusi ahal izango dute, kode berezi bat eta QR bat agertuko baitira, faktura ondo jaulkita dagoela egiaztatzeko beharrezko informazioarekin.

TicketBAI betebeharrak berria sozietateen gaineko zergaren, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren eta ez egoiliarren errentaren gaineko zergaren foru arauetan taxutu da, zerga hori ordaintzen duten establezimendu iraunkorrei dagokienez, eta, horrez gain, kasuan kasuko erregelamenduzko garapenen bidez, sistemaren berezitasunak arautuko dira.

Betebeharrak berri horri dagokionez, Arabako Ogasunak doako aplikazio bat sortu zuen, zergadunen eskura jarriko zena fakturak jaulkitzeko TicketBAI betekizunekin, FakturAraba izenekoa, eta erregistro bat sortu zuen, non inskribatzen diren TicketBAI betebeharrak betetzeko behar diren software espezifikoak, bai eta horiek garatzen dituzten pertsonak edo erakundeak ere. Horri esker, beste bi lurralde historikoetako erregistro publikoekin konektatu ahal izan da, eta erregistro batean inskribatzeak ahalmena emango dio inskribatutako erakunde garatzaileari erregistratutako softwarea EAEko foru zergadun guztiei banatzeko.

TicketBAI sistema 2022an jarri zen martxan Araban nahitaez, eta 2023an sortu eta bidali dira igorritako fakturei dagozkien fitxategiak. Horrenbestez, 2024an, honako ekintza hauek egingo dira:

a) Zergadunei sistema berriaren edukiaren eta funtzionamenduaren inguruko informazioa ematea, arreta bide desberdinen bitartez, eta bereziki web orriaren edukia zabalduz eta eguneratuz, ohiko galdera eta erantzunei buruzko atala bereziki kontuan hartuta, eta sektoreko kolektiboen ordezkariekin bilerak eginez, hori guztia beste bi lurraldeekin koordinaturik, zergadunek egin behar berriak betetzearen inguruko zalantzak ahalik eta azkarren eta osoen argitu ahal izan ditzaten.

b) Zergadunei lagundu zaie sistema berriaren betebeharrak betetzen, eta, bereziki, softwarea garatzen duten enpresei, banatzen dituzten softwareen funtzionamendu egokia ziurtatzeko eta sistemaren balidazioak ez betetzeagatik gertatzen diren erroreak eta ezesteak minimizatzen.

c) FakturAraba aplikazioaren funtzionalitateak zabaldu eta hobetu dira. Foru Ogasunak berak garatu du aplikazioa, eta pertsona eta erakundearen eskura jarri du, TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituzten fakturak jaulkitzeko.

d) FakturArabaren bidez nahiz TicketBAI Erregistroan inskribatutako beste edozein softwarearen bidez bidalitako fakturak kontsultatzeko web aplikazioa zabaltea eta hobetzea. Aplikazio horrek aukera ematen du bidalitako fakturen xehetasunak eta gorabeherak kontsultatzeko, faktura horien zerrendak deskargatzeko eta BEZari eta sozietateen gaineko zergari buruzko ereduak aurkeztea erraztuko duten aitorenpenetarako laborpenak lortzeko.

e) IZENPErekin koordinatzen jarraitu da, TicketBAI fitxategiak sinatzeko betekizunaren funtzionaltasuna ziurtatzeko.

f) Fakturak zuzen egin eta entregatu direla egiaztatzen jarduketak egin dira, bai eta TicketBAI betebeharraren mende dauden enpresaburuek eta profesionalek fakturen fitxategiak bidali dituztela egiaztatzen ere.

g) Jasotako TBAI fitxategiak kontrolatzea, eta BEZari eta sozietateen gaineko zergari buruz aurkeztutako aitorenpenetan eta autolikidazioetan jasotako datuekin alderatzea eta aztertzea.

## II. Iruzur Fiskalari Aurre Egiteko Plataforma Teknologiko Integratua.

Iruzur Fiskalari Aurre Egiteko Plataforma Teknologiko Integratua software soluzio bat da, zerga figuretan portaera ereduak eta iruzur fiskala aztertzen funtzionaltasunak hobetzen jarraitzen duena. Hasiera batean, sistema hori gaur egun eskuragarri dauden datu asko aprobeztatzeko ezarri zen, iruzur fiskala automatizatu eta modu eraginkorragoan detektatzeko. Iruzurra detektatzeko metodologia berria datuen analitika aurreratuan oinarritzen da, eta zehaztasuna hobetzea du helburu, hainbat ikuspegiaren bidez.

Datuen analisi deskribatzailearen helburua da zergadun batek jarduera segmentuaren eta negozio tamainaren arabera izan dezakeen portaera normala edo aurreikusgarria ezagutzea. Aldagai anitzeko analisia erabiltzen du aldagai iragarle askoren eragina eta elkarreragina ikertzeko, korrelazio matrizeen bidez. Teknika horiek iruzurra detektatzen laguntzen dute, portaeran anomaliak identifikatuz eta alertak sortuz ezohiko edo ohikotik desbideratutako aldagaien konbinazioetatik abiatuta. Datuen monitorizazioak beren taldetik nabarmen aldentzen diren jokabideak dituzten zergadunak identifikatzea errazten du.

Harreman sareen analisia grafoen egiturak erabiltzen ditu nodoen edo erakundeen arteko erlazioak adierazteko; besteak beste, pertsona fisikoak edo juridikoak, helbideak, jabetzak, finantza-aktiboak. Harremanek finantza transakzioetatik, merkataritza harremanetatik, jabetza egituretatik, enplegutik eta egintza juridikoetatik eratorritako loturak deskribatzen dituzte. Sareen analisi teknika horiek anomalia eta harreman konplexuak detektatzen laguntzen dute, gako nodoak eta zeharkako konexioak identifikatuz.

Gainbegiratu gabeko ikaskuntza tekniken helburua da iruzurraren patroiak eta anomaliak identifikatzea, iruzurrezko gisa etiketatutako alde aurreko datuen beharrik gabe. Eragiketetik klusterrak edo antzeko obligaziodunak sortzen dituzte, inongo taldera egokitzen ez diren transakzio edo erakundeak detektatuz, eta datuen dimentsionaltasuna murrizten dute, osagai nagusietan desbideratzeak detektatzeko.

Gainbegiraturako ikaskuntza teknikek zailtasunak izaten dituzte barneko datu historikoetatik ikasteko; izan ere, datu banku nahikoa handia behar da, egiaztapen historikoekin eta egiaztatutako ekitaldietan behatutako adierazleen kontserbazioarekin. Horregatik, oraingoz ez dirudi aurrerapen handia egin daitekeenik.

Laburbilduz, soluzio informatiko horien helburua da zergadunen eta haien arriskuen ebaluazioan aurrera egitea, tamaina eta sektore bereko beste enpresa batzuekiko konparazio informazioa emanez, bai eta zergadunaren negozioaren beraren adierazleen eboluzio informazioa ere.

Harreman ekonomikoen adierazle eta grafiko berri horiek Foru Ogasuneko langileen eskura jartzen ari dira. 2024rako, plataforma teknologiko hori hobetzen eta sendotzen jarraituko da, zerga kontrolaren ziklo osoa estaliz, zergadunen plangintzatik eta hautaketatik hasi eta ikuskatzailei laguntzeraino eta lortutako emaitzetan oinarritutako atzeraelikadura sistema bat ezartzeraino, ezagutza patroiak hobetzeko.

### III. Berehalako Informazio Hornidurako Sistema (BIH).

2018an, Berehalako Informazio Hornidura (BIH) sartu zen indarrean Araban, BEZa kudeatzeko.

Sistema horrek zenbait subjektu pasibori (hileko itzulketen erregistroan inskribatutakoak, enpresa handiak eta BEZ taldeak) zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Ogasunaren egoitza elektronikoaren bidez eramatea ezartzen die, epe laburrean fakturazio erregistroak aurkeztuta. Horrela, zer jarduera fakturatu den berehala jakin dezake Foru Ogasunak.

BIH abian jartzeak aldaketa ekarri du BEZa kudeatzeko gaur egun dagoen sisteman. Horrela, erregistroak egiten direnetik ahalik eta lasterren egiten dira egiaztapenak.

2024an, gainerako foru ogasunekin eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziarekin batera lan egiten jarraituko da, sistema honi atxikitako subjektu pasiboen fakturazio erregistroei buruzko informazioa trukatzeko zerga administrazioen artean, eta informazio eskuragarria lortzeko eta ustiatzeko tresnak BIHren bidez egokitzen jarraituko da.

### IV. Zerga berezien kontabilitate liburuaren berehalako hornidura (SILICIE).

2020ko urtarrilaren 1ean, indarrean jarri zen zerga berezien xede diren produktuen kontabilitatea Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bitartez eramateko betebeharra, eta, hala badagokio, produktu horiek lortzeko erabilitako lehengaien kontabilitatea eramatekoa; horretarako, lantegien, zerga gordailuen, zerga biltegien, harrera gordailuen eta ozpin lantegien titularrek kontabilitateko idazpenak elektronikoki hornitu behar dituzte.

Kontabilitate liburuak eramateko sistema berri horri esker, Arabako Foru Ogasunak informazio nahikoa eta kalitatezkoa izango du zerga iruzurra kontrolatu eta prebenitzea errazteko, lehentasunezko helburuak izanik, eta zergadunei euren betebeharrak betetzen laguntzeko tresna bat emango die.

2024an, sistema horren bidez eskura dagoen informazioa aztertzeke eta ustiatzeko jarduerak bultzatuko dira.

2) Ikastetxeetan zerga heziketako proiektua finkatzea eta haren aplikazio eremua berrikustea, datozen ikasturteetan ikasle gazteagoen adinera zabaltzeko.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailaren lehentasunezko helburuetako bat da zerga iruzurra justifikatzen duten jarrera sozialak borrokatzea. Horretarako, beharrezkoa da gizarteari informazioa ematea, hobeto uler ditzan finantza publikoak eta zergen egitekoa.

Horren helburua da zerga betebeharrak borondatez betetzea, herritarrei zerga iruzurrak ekartzen dituen ondorio negatiboak jakinarazita eta horren bidegabekeriaz ohartarazita. Horrez gain, funts publikoen xedea ere azaltzen zaie: zer zerbitzu ematen diren ordaindutako zergekin, eta horrek nola laguntzen duen Araba lurralde solidario eta orekatuagoa izaten.

Helburu hori betetzeko, 2017an hezkuntza zibiko-tributarioko programa bat jarri zen abian, Foru Ogasunak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin eta Ogasun eta Ekonomia Sailarekin elkarlanean, ikastetxeei zuzendutako ekonomiari eta fiskalitateari buruzko unitate didaktiko bat ezartzeko.

Hezkuntza modulua atxikitako ikastetxeetako derrigorrezko bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleei ematen zaie, eta zergei, zerga sistema foralari eta zergen xedeari buruzko oinarriko ezagutzak azaltzen dira, konpromiso jarrerak indartzeko, zergen balio soziala eta gastu publikoarekiko lotura nabarmenduz.

Proiektuarekin jarraitzeko asmoa eta 2017/2018 ikasturteko esperientziaren balorazio ona kontuan hartuz, erakunde sustatzaileek hezkuntza programa beste hiru ikasturte luzatzea egokitzen jo zuten, hots, 2021. urtera arte.

2021ean, lankidetzaren hitzarmen berri bat sinatu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru aldundien artean, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan 2021-2022 eta 2022-2023 ikasturteetan zerga unitate didaktikoa ematen jarraitzeko, lanbide heziketako ikastetxeetara zabaltzeko aukera eta guzti.

Halaber, hitzarmen berriaren babesean, 2021ean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan unitate didaktikoak ezartzeko zerbitzuak emateko kontratua esleitu zen.

Hitzarmenak luzatzeko aukera jasotzen zuen, 2023an aktibatu zena, 2023-2024 eta 2024-2025 ikasturteetan zerga heziketako programaren jarraipena bermatuz.

2023-2024 ikasturteari dagokionez, parte hartzen duten erakundeek (foru ogasunek eta Eusko Jaurlaritzak) programaren jarraipena eta kontrola egin dute aldizka eta zorrotz, Hitzarmenaren Jarraipena eta Balorazio Batzordearen bitartez, urtean bost bat bilera eginez.

2023-2024 ikasturtea amaitu eta emaitzak ebaluatu ondoren, hurrengo ikasturterako (2024-2025) izena emateko kanpainari dagozkion ekintzak jarriko dira abian.

Bestalde, 2024an, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien arteko egungo lankidetzaren hitzarmena berritzeko lanei ekingo zaie, hurrengo ikasturteetan zerga heziketako programari jarraipena emateko, behin indarraldia amaituta.

Egungo hitzarmenaren aplikazio eremua berrikustea aurreikusi da, hitzarmen berrituan zabaltzeko, DBHko 4. maila ikasten dauden baino ikasle gazteagoei emateko, programa eta hezkuntza materiala behar bezala egokituz.

3) Informazio eta laguntza zerbitzuak ematea, zerga betebeharrak borondatez bete daitezela sustatzeko, eta funtzionarioen berariazko prestakuntza bultzatzeko.

2024. urterako helburua izango da arlo honetan zergadunei autolikidazioak eta aitortenak egiteko emandako laguntza hobetzen jarraitzea. Arabako Ogasunarentzat oso garrantzitsua da zergadunei ematen zaien laguntza, aurre egin beharreko administrazio kargak murrizteko, zerga betebeharrak borondatez betetzea erraztuz eta, beraz, ez-betetzea prebenituz.

Zehazki, laguntza programen bidez emandako laguntza indartuko da, autolikidazioak egiteko. Horrela, Arabako Ogasunean dauden hirugarren pertsonen emandako zerga arloko datuak haietan sartzeko aukera emango dute. Halaber, hobekuntzak egingo dira zergadunek emandako zerga informazioan, bai kantitateari dagokionez, bai ikusten diren datuen kalitateari dagokionez.

Ildo horretan, nabarmentzekoa da Arabako Ogasunak gaitutako web aplikazioa, TicketBAI betebeharra betez bidalitako fakturen kontsultari buruzkoa. Aplikazio horrek aukera ematen die zergadunei jaulki eta Ogasunera bidali dituzten fakturen zerrendak eta laburpenak eskuratzeko, BEZaren eta sozietateen gaineko zergaren aitortenak aurkeztea errazte aldera. Ildo horretan, Arabako Ogasuna lanean ari da zergadunei jaulkitako fakturei dagokien BEZaren zirriborroak emateko.

Joan den urtean, Covid-19aren pandemiak eragindako larrialdi egoerak teknologia berrien erabilera nabarmen bizkortzea ekarri du zeharkako ondorio gisa, zergadunek zerga administrazioekin dituzten harremanetan aurrez aurreko laguntza emateko ohiko bitartekoen aldean, eta prozesu hori 2024an bultzatzen jarraituko da. Horrek berekin dakar aitortenak aurkezteko kanal telematikoa orokortzea, identifikazio elektronikoko sistemak aktibatzea erraztuz, hala nola Bak ziurtagiria.

Bestalde, jardunen kategoria horren barruan baita ere, aurretiko administrazio lotura prozedurak erabiliko dira, gure zerga zuzenbidearen segurtasun juridiko eta ziurtasun giro bat ezartzeko, bere jardunaren zerga ondorioen egonkortasun, konfiantza eta aurreikuspen berme nahikoak eman ditzan eragile ekonomiko guztietarako.

Barne prestakuntzari dagokionez, zerga arloak eskatzen duen etengabeko prestakuntzaz gain, prestakuntza indartuko da gai espezifikoean, hala nola nazioarteko fiskalitatea, ekonomia digitalari buruzko negozio edo eragiketa berrien fiskalitatea edo ikuskaritza informatikoko tresna eta tekniken erabilera egiaztapen prozeduretan.

4) Aurreko urteetan bezala, jardun hauek egiten jarraituko da:

a) Europar Batasunaren Barruko Eragileen Erregistroan sartzeko eskaerak kontrolatuko dira eta erregistro horretako eragileen jarraipen lanak egingo dira, sarrera eskatzen dutenei ezezkoa emateko edo erregistratuta dauden eragileei badaezpada baja emateko, behar denean.

Europar Batasunaren barruko eragiletak egiten dituzten eragile horien kontrol egokia ezinbestekoa da Batasunaren barruko BEZean iruzurgile sarerik sor ez dadin.

b) Hileko Itzulketen Erregistroan sartzeko eskaerak kontrolatzea eta erregistro horretako eragileen jarraipen lanak egingo dira, bai sarrera eskatzen dutenei ezezkoa emateko edo erregistratuta dauden eragileei kautelazko baja emateko, bai iruzurrezko jarduketak egiten dituzten eragileei BEZaren itzulketak egitea galarazteko.

c) Zergadunek enpresaburuen, profesionalen eta atxikitzaileen zentsuko alta, aldaketa eta baja aitorten emandako datuak eta, bereziki, zergapekoek aitortutako zerga egoitzena, egoitza atzerrira lekualdatu izana jakinarazteko kasuak barne.

d) Indarreko arautegian ezarritako kasuren batean dauden erakundeei identifikazio fiskaleko zenbakia indargabetzea.

e) Egiaztatuko da ea zergadunek betetzen ote dituzten informazio aitortenak aurkezteko betebeharrak, foru arautetan ezarritako informazioa emateko betebeharra betez.

f) Arabako Foru Ogasunak aurreko urteetan egiaztatu dituen jarduera ekonomikoko sektoreetan sartuta dauden zergadunen jarraipenarekin segituko da, egiaztatzearen jarduera horietan adierazi den errenta mailari eutsi zaiola zergadun horiek ondoren aurkeztu dituzten aitortpenetan.

g) Zuzeneko jardunak egingo dira in situ, ezartzen diren betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, eta azken kontsumitzaileei ondasunak edo zerbitzuak ematen dizkieten establezimenduek fakturak entregatzeko, bereziki eskudirua erabiltzen duten ekonomia sektoreetan.

Era berean, azterlanak egingo dira establezimendu horiek egindako jarduerak erregistratzeko erabiltzen diren sistema informatikoen azpiegitura teknologikoko erregistroen kontrol eta analisiari buruz.

Alde horretatik, ezinbestekoa da TicketBAI eginbeharretik lortutako informazioa eraginkortasunez ustiatzea eta kudeatzea.

h) Ogasun Publikoari zordunen zerrenda argitaratzea, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 92. Ter artikuluan ezarritakoaren arabera.

Iruzurrezko jokaeren berri emango da, gizarteak jakin dezan. Neurri horren helburua da zergadunek beren zerga betebeharrak borondatez betetzeko sustapena egitea.

Aipatzekoa da 2022an Arabako Ogasunak aldatu egin zuela Zergei buruzko Foru Arau Orokorra, eta idazketa berria eman ziola zerga zordunen zerrenda arautzen duen artikuluari, zerrenda horren irismena eta disuasio eragina handitzeko; izan ere, 1.000.000,00 eurotik 600.000,00 eurora jaitsi zen zerrenda horretan sartzeko zenbatekoa, eta erantzule solidarioak berariaz gehitu ziren zerrendan. 2024 da zordunen zerrenda argitaratu den lehen urtea, irizpide berri horien arabera.

### 2.3. ERREGULARIZAZIO ETA KOBRANTZA JARDUNAK.

Jardun horiek, kudeaketa eta ikuskapen organoek garatutako zergen aplikazio prozedurak ezarri zaizkien pertsona eta erakundeen zerga egoera egiaztatzeko, ikertzeko, eta hala badagokio, erregularizatzeko dira. Halaber, dirubilletako organoek zergadunek, bai borondatezko aldian, bai betearazte aldian, ordain dezaten lortzeko garatutako jarduerak ere aztertzen dira.

Erregularizazio jardunen helburua iruzurra egin ondoren kuantifikatzea eta zehatzea da, eta berriro egin ez dadin konbentzitzeko balio dute.

Jarduera horien arrakasta, neurri handi batean, Arabako Ogasuneko organoek egiaztatutako dituzten pertsonak eta erakundeak ongi hautatzearen mende dago; beraz, jardun horiek askotan administrazioak informazioa lortzeko jardunak garatzean lortutako zerga arloko garrantzia duen informazioaren kalitatearekin eta hedapenarekin lotuta dago.

Halaber, kudeaketa eta ikuskapen organoek adierazitako zerga zorra kobratzeko, askotan, dirubilletako organoek informazio egiazkoa eta osoa izan behar dute ordaintzera behartuta dauden pertsona guztiei buruz, bai zordun nagusiak badira, bai haiekin lotutako erantzule solidario eta subsidiarioak badira.

Horrenbestez, ezinbestekoa da zerga administrazioiko organoen arteko lankidetzaren estua, helburuak lortzen dituztela bermatzeko.

2024. urtean auditoretza informatikoko tresnen erabilera sustatzen jarraituko da, zerga arriskuak eraginkortasun handiagoarekin aztertu eta antzemateko eta ikuskatzaileei kontabilitate egoeren eta zerga aitortpenen jatorri diren sistema informatikoetako eragiketa ekonomikoen erregistroaren edo idatzoharraren osotasunari eta zehaztasunari buruzko iritzi oinarrituna izateko aukera ematen dieten behar diren ebidentziak lortzeko.

Hartara, ordenagailuz lagundutako auditoretza tresna (CAAT) erabiltzen jarraituko da, zeina aktuarioek erabiltzen baitute 2007az geroztik, eta etengabe hobetzen ari da. Tresna horrek aukera ematen du egiaztapen prozeduretan zehar lortutako era guztietako datuen analisi informatikoa errazteko, ebidentzia elektronikoen trazabilitate eta babes egokiarekin, prozedura administratibo eta judizialean aurkezteko.

Halaber, egiaztapen eta ikerketa jarduerak bultzatuko dira bulegoetan, negozio lokaletan eta jarduera ekonomikoak garatzen diren gainerako establezimendu edo lekuetan, ahal den neurrian auditoretza informatikoaren kontrolak erabiliz. Zenbait kasutan, jardun horiek gainerako lurraldeetako zerga administrazioekin koordinatuta egin ahal izango dira.

Erregularizatzeko eta kobratzeko jardunak esparru hauetan garatuko dira 2024an:

1) Enpresa taldeak kontrolatzea.

Enpresa talde handietan gehien gerta daitezkeen zerga gorabeheren berariazko kontrolak egingo dira.

Ildo berean, nazioartean dauden enpresa taldeek, hitzarmenez baliatuz, edo eragiketak baloratuz eta kokatuz, edo guztiz artifiziosuak diren eta helburu bakarra, hain zuzen, zergetatik ihes egitea duten sozietate egiturak sortuz, lurralde historikoan tributazioa murriztearren zerga ordainketatik ihes egiteko egindako jarduerak jazarriko dira.

2) Zerga taldeak kontrolatzea sozietateen gaineko zergan. Kontsolidazio perimetroa, kentzeak, gehitzeak, oinarri negatiboen konpentsazioa eta kenkarien aplikazioa zehaztean, zerga kontsolidazioko araubide berezia zuzen aplikatzen den aztertuko da.

3) Ekonomia jarduerak egiten dituzten pertsona edo erakundeek aitortutako etekinen kontrol osoa, funtsean inguruabar hauetako bat gertatzen bada:

a) Baxuegiak diren edo jarduera sektorearen edo negozio ereduaren batez bestekoaren nabarmen azpitik dauden etekinak aitortzea.

b) Kreditu txartelen, eskudiruzko kobrantzen edo konturako sarreraren bidez kobrantza kudeatzeko sistemari atxikita dauden tresnen titularrak diren pertsonen irregulartasunak aurkitzea.

c) Eduki ekonomikorik gabeko fakturak dauden eta balio erantsiaren gaineko zergan bereziki iruzur talde antolatuetan parte hartzen den zantzuak egotea.

d) Balio erantsi handiko eta zerga arrisku handiko sektoreetan jarduerak egiten dituzten zergadunak izatea, edo beren eragiketen kobrantzaren ehuneko handi bat eskudirutan egitea edo azken kontsumitzaileentzat izatea.

e) Sozietateak ezartzeko kontrol jardunak egotea, horien bidez, pertsona fisikoen zerbitzu oso pertsonalak fakturatzen dituztenak.

4) Dagozkien zergen autolikidazioa nahitaez aurkeztu ez duten zergadunak kontrolatzea, zergak itzultzea eskatu badute edo zenbait zergalditan edo aitorpenetan behin eta berriz konpentsatzeko kopuruak egiaztatuta badituzte.

5) Zerga onurak egiaztatzen dituzten autolikidazioak kontrolatzea, sortu diren ekitaldi berean aplikatu beharrekoak izan ala ez, edo aurreko aldietan egiaztatutako kenkariak edo bestelako zerga pizgarriak finkatzeko baldintzak betetzeko epeak amaituta dituztenak.

6) Sozietateen gaineko zergaren zerga oinarrian egindako zenbateko handien doikuntzak kontrolatzea eta beste aldi batzuetan egindako doikuntzen ondorioz egin behar zirenen jarraipena egitea.

7) Lotutako pertsonen edo erakundeen arteko eragiketak kontrolatuko dira funts ekonomikorik ez dutenak eta merkatukoaz oso bestelako balio bat ezarrita dutenak antzemateko.

8) Zerga administrazioek duten informazioaren arabera, aitorpenetan inkoherentzia handiak dituzten zergadunak kontrolatzea.

9) Zergadunek zerga administrazioari aitortu gabeko ondasun eta eskubideak dauden aurkitzea, edo aitortu arren, zergaldian aurkeztutako aitorpenetan aitortutako etekinekin bat ez datozenak dauden. Ildo horretan, nazioarteko informazio trukeagatik eta atzerriko ondasun eta eskubideen 720 ereduaren adierazitakoagatik agerian gera daitezkeen inkongruentzietan jarriko da indarra.



10) Analizatu egingo dira, era berean, sozietateen arteko bat egiteak, banantzeak, edo diruz besteko ekarpenak edo egoitza sozialaren aldaketak, duten zerga garrantzia dela eta, eta berdinez izango da Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluko zerga araubide berezia eskatu duten ala ez. Halaber, ea betebeharrak formalak eta materialak bete dituzten analizatuko da.

11) Atxikipenak eta konturako sarrerak egitera eta sartzera behartuta daudenen kontrola, eta, bereziki, dieta gisa aitortutako zenbatekoena edo bestelako ordainsari batzuen, hau da, haiek ordaindu eta zergapetu dituzten enpresek beren langileei atxikipen eta kargetatik salbuetsitako bestelako ordainsariena.

12) Txekak kobratu dituzten edo zenbateko handiko eskudiruko mugimenduak egin dituzten zergadunak kontrolatzea. Alde horretatik, eragiketa mota horien muga betetzen ez duten eskudiruzko ordainketak egon daitezkeen ikertuko da, sozietateen gaineko zergan eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan kengarriak ez diren gastuak hautemateko, kontuan hartuta, bereziki, 2021eko uztailaren 11ko ondorioekin, Iruzur fiskala saihesteko eta haren aurka borrokatzeko neurriei buruzko uztailaren 9ko 11/2021 Legeak 2.500,00 eurotik 1.000,00 eurora jaitsi duela eskudirutan ordain daitezkeen zenbatekoa.

13) Aktiboa, gehienbat, jarduera ekonomiko bati atxikita ez dauden eta funtsean errenta pasiboak lortzen dituzten ondasunez osatuta duten sozietateen tributazioa zuzena dela egiaztatzea, eta entitate horietako bazkideena, izaera horren ondorioz eragiten dieten zerga guztietan.

14) Erakundeak desegitean eta likidatzean zergak behar bezala ordaindu direla egiaztatzea.

15) Txanpon birtualekin egindako eragiketen bidez lortutako irabazien tributazio zuzena egiaztatzea.

16) Zerga administrazio bati baino gehiagori zergak eragiketa bolumenaren arabera ordaintzen dizkioten erakundeek aitortutako tributazio ehunekoak zuzen aplikatzen direla egiaztatzea, lurralde erkidekoa edo foru lurraldekoa den kontuan hartuz eta, oro har, Ekonomia Itunean ezarritako ordainarazpen arauak behar bezala aplikatzen direla egiaztatzea, kontuan hartuta, bereziki, Arbitraje Batzordearen ebazpen berrienetan eta Auzitegi Gorenaren epaietan ezarritako interpretazio irizpideak.

Arabian lantokiak dituzten sozietateak egiaztatuko dira, baldin eta langile kopuru handia badute eta Arabako Ogasunean sozietateen gaineko zergaren edo BEZaren aitortpenik aurkeztu ez badute.

17) Ez egoiliarren zerga betebeharrak kontrolatzea, Arabako Lurralde Historikoan egiten dituzten jarduerengatik.

Espainiako lurraldean bizi ez diren pertsonen tributazioa egiaztatzeko jardunak egingo dira, lurralde historikoan egiten dituzten jarduerengatik; zehazki, establezimendu iraunkorrik gabeko ez egoiliarrei egindako ordainketengatik sartu ez diren atxikipenak erregularizatuko dira.

18) Fabrikak, zerga gordailuak, zerga biltegiak edo erregistratutako establezimenduak kontrolatzea, fabrikazioko zerga berezien ondorioetarako.

19) Higiezinaren negozioei dagokien zerga ordainketa osorik kontrolatzea, eskualdaketei eta errentamenduei dagokiena barne delarik.

20) Barne eremutik nahiz Europar Batasuneko beste estatu batzuetatik datozen ibilgailuen eskualdaketak kontrolatzea, balio erantsiaren gaineko zergan, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezian eta beste zerga batzuetan iruzurrik ez egiteko.

Azkenik, erregularizazio jardunei dagokienez, Ogasun Publikoaren aurkako delituen baten zantzuak antzemanaz gero, Arabako Foru Ogasunak behar diren txostenak igorriko dizkio Fiskaltzari, hark, egoki baderitza, salaketa aurkez dezan.

21) Iruzurraren kontrola, zerga bilketaren fasean.

2024. urterako dirubilketa arloan jarduteko oinarrizko ildoak bi helburu nagusik gidatuko dituzte. Alde batetik, zergadunei informazioa eta laguntza emanez zerga betebeharrak betetzea erraztea, obligazioa duten pertsonen ordaintzeko duten betebeharra berez betetzea sustatuz, nahiz eta betebeharrak hori berehala gertatzen ez den.

Bestalde, zerga bilketako iruzurraren errepresio jarduerak, ordaintzeke dauden zorren kobrantza gauzatzera bideratzeaz gain, disuasio efektua edo despizgarria ere gainditu behar dute iruzurrezko jardueren bidez ordaintzea saihesten saiatzen diren pertsonentzat.

Horrela, lehen azaldu den bezala, zerga bilketaren arloak urtero argitaratuko du zordunen zerrenda, zorreatatik eta ordaintzeke dauden zehapenengatik zenbateko esanguratsuak badiutuzte. Neurri hori zerga kontzientzia kolektiboa indartzeko bitarteko gisa eratzten da, gizarte gaitzespen handia duten portaerei publikitate ematen baitie, zerga betebeharrak borondatez betetzera bideratutako prebentzio- eta hezkuntza-tresnen barruan.

Beraz, 2024. urteko diru bilketaren faseko eremuetan, honako jarduera ildo hauei emango zaie lehentasuna:

1. Zerga zorrak ordaintzera behartuta dauden pertsonen jarraipena eta kontrola.

Zerikusia duten zordunei edo hirugarrenei dagokienez, iruzurraren aurkako borrokaren helburua da zerga zorren kobrantza lortzea ahalbidetzen duten ondasunak eta eskubideak aurkitzea, bai eta ondare hustuketak eta zorrak ordaintzea saihesteko iruzurrezko beste eragiketak batzuk antzematea ere. Ondarea ikertzeko jarduketak horiek helburu hauek dituzte:

– Beste arlo batzuekiko lankidetzak jarduketak areagotuko dira, egiaztapen prozeduretan agertzen diren jarduketak aurreratzeko eta zorrak seguratzeko.

– Zorra kobratuko dela ziurtatzeko eskaintako bermeen bideragarritasun juridikoa eta ekonomikoa aztertuko da, batez ere geroratzeak eta zatikatzeak emateari dagokionez, eta dirubilketa prozedura eteteko eskaeretan eta porrot prozeduretan.

– Ondare ezkutatzeko eta hustuketak antzematea, zordunek ondasunak eta eskubideak eskualdatzeko, dohaintzak egiteko, jaraunspenei uko egiteko eta antzeko eragiketarako egindako eragiketak kontrolatuz eta berrikusiz. Jarduketak horiek ondasunak ostentzeko jokabideak agerian jartzea ekar dezakete, baita zigortzeko moduko kaudimengabeziak ere, bai dirubilketako prozedura arrunten barruan, bai porrot prozeduren barruan.

– Ondare betearazpenak bultzatzea, enbargo eta enkante jarduketak eginez, zorrak kobratzeko nahiz hirugarren zordunen aurrean disuasio ondorioak izateko.

– Erantzukizun deribazioak hartzea. Dirua biltzeko fasean iruzurra prebenitzeko eta kontrolatzeko tresna gisa eraginkorrena izan den tresnetako bat erantzukizuna bideratzea eta, oro har, hirugarrenei zorrak eskatzea izan da. Aurreko urteetan bezala, 2024an hirugarren erantzuleak identifikatzeko eta zorrak ordaintzeko eskatzeko arauan aurreikusitako egitatezko kasuak betetzen direla egiaztatzeko ikerketa jarduketak egiten jarraituko da.

– Kautelazko neurriak hartzea. Era berean, ondarea husteko jokabideen ondorioz edo zorrak kobratzea arriskuan jar dezaketen beste jokabide batzuen ondorioz ez ordaintzeko arriskuari aurre hartzeko eta aurre egiteko, arrisku hori arintzeko egokiak diren kautelazko neurriak hartzea proposatuko da.

– Betearazpen aldiko zorraren kontrola. Ordaintzeke dagoen zorraren etengabeko kontrola egingo da, bereziki, enbargo fasean dagoen zorrarena, bilketaren kudeaketa arintzeko eta, horrela, zorra murrizteko. Horretarako, zor hori berrikusiko da, batez ere zaharrena, premiamendu prozeduraren amaiera arintzeko. Era berean, faltsutze deklarazioak berrikusiko dira, eta kobraezintzat jotako zordunen kaudimengabezia egoerak bere horretan jarraitzen duela egiaztatuko da.

— Etendako eta geldiarazitako zorren kontrola. Geldiarazitako eta etendako zorren kontrol eta jarraipen jarduerak egingo dira. Horretarako, bereziki berrikusiko dira errekurtsio edo erreklamazioagatik etendako zorrak edo epemugak, epaien eta ebazpenen betearazpena arinduz.

2. Erantzukizun zibilarren ondoriozko zorren ordainarazpena eta zerga delituen ondoriozko isun zigorrak.

Zergen Foru Arau Orokorrak erantzukizun zibilagatiko zorrak eta isun zigorrak ordainarazteko eskaintzen dituen aukera guztiak erabiliko dira aurrerantzean ere, baldin eta Arabako Foru Ogasunari zor horiek kobratzea agintzen bazaio. Arreta berezia jarriko da kondenatuen jokabideetan, organo judizialei jakinarazi behar bazaie ere, eta, hala badagokio, espetxeratzeko zigorraren etendura errebokatzeko eskatuko da, kaudimengabeak izan gabe ordaintzeko betebeharrak betetzen ez dituztelako, eta dagokion ondare ikerketa egingo da.

3. Porrot prozeduren esparruan zerga betebeharrak betetzen diren zaintzea, kudeaketa- eta ikuskapen-organoekin koordinatuta, eta zorraren ordainketa kontrolatzea porrot aurreko fasean, likidazio fasean eta hitzarmen fasean. Era berean, akordio berezien bidez, pribilegiadun zorren kasuan, edo ordainketa planen bidez, ordaindu gabeko pasibotik behin-behinean salbuesten diren kasuetan, ez-betetzeen kasuan dagozkion jarduketak bide judizialean edo administrati-boan eginez.

Era berean, zerga zor ordaindu gabeen erantzule diren hirugarrenen identifikazioa nabarmenduko da, dagozkion erantzukizunen ondorioak egiteko. Arreta berezia jarriko zaio masarik gabeko lehiaketetan jarduteko aukeren azterketari.

Azkenik, nazioarteko elkarrekiko laguntzari dagokionez, 2024an beharrezkoak diren lan guztiei eutsiko zaie diziplina anitzeko ikuspegitik (juridikoa, teknologikoa eta antolaketa eta koordinazio arlokoa), Europar garrantzi eta eraginkortasun handia duen tresna hori erabili ahal izateko, atzerrian ordaintzera behartuta dauden pertsonen jabetzako ondasunak eta eskubideak lokalizatzeko eta ordaindu gabeko zerga kredituak kobratzeko.